

1. Aitamek zer aholku eman zioten Joasttipirei
2. Aholku horieri jarraiki zena?
3. Zertako ez zen menperatu horiei? ^{gertatzen?} ^{ustez galey.}

BEHIA ETA JOAREA

Joasttipik behiak zaintzen zituen Oihanaldeko bazka-lekuan. Abiatu gabe abisatu zuten: "kasu emak: berro baten gibelean, brostek gorderik, kausi daiteke ohoian bat, giza-tzar bat!"

Behiek joare bedera bazaukaten lepotik dilindan. Alabainan behi ederrenak zaukan joare ederrena.

Arats-alderat gizon batek, bazka-lekuan gairi iragaitean, erran zion behi-zainari: "Hauxe duk joare superra! Zenbatsu gostaia zurek?"

"Hiru liberako, ihardetsi zuen Joasttipik." - "Sei emaiten dauzkia!"
 sa... en badautak." (i)

Joasttipik atseginekin eskuratu zituen sei liberakoak; joarea destekaturik eman zion gizonari. Hunek, egia erran, behiaren ebasteaz bai-zik ez zuen gogorik.

Hori bera gertatu zen.

Joareaz gabeturik, behia abel-tropatik urrundu zen. Ohoinak izaindo handi baten gibeletik jauzi egin zion, adarretarik lotzen zitzaioela eta bere etxerat jarraik-arazten.

Joasttipi behiaren eskasaz ohartu orduko aita-amen ganat itzuli zen nigarrez eta kondatu zioten gertatu zitzaiona.

"Ez nuen sekulan pentsatuko, zion mutiko gazteak, joarea hain kario pagatuz biligarroak behiaren ohointza apailatzen zuela!"

Aitarek erasieri ez zaizkien eskatu gatz-biperrak!

Amak aldiz erran zion:

"Haurra, ez hiza behin ere gogoeta egon zergatik zaharrek sortu zuten azindaren joarestatzeko usaia?"

"Ondikoz! diruak liluratu nau: ez nuen ikusten hiru liberakoren irabazteko parada baizik!"

"Beha, segitu zuen amak, zer gertatzen zaien jaidurek itsuturik dabilzan pertsoiari. Ez die estimurik usaia zaharrentzat: deusetako ez dauzkie; bainan esperientziak argiturik airtortzen die gure aintzinekoei ohidurak zentzuz asmatuak izan zirela."

(i) UKAN Conj. à dble cpl. (conj. familière) Indicatif Présent

Hiri = à toi (Objet sing.)	Objet pluriel
Nik daukat = je te l'ai	dauzkia = je te les ai
Harek dauk = il te l'a	daukit = il te les a
Guk daukagu = nous te l'avons	daukiagu = nous te les avons
Heiek dauke = ils te l'ont	daukie = ils te les ont
Hiri = à moi - O. Sing.	Hiri à moi - Obj. pluriel
Hik dautak/n = tu me l'as	daukitak/n = tu me les as
altzen dautak = tu me le rends.	Emaiten daukit = je te les donne

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Kausi daiteke 32. Bazaukaten
 33. Eman zion 34. Zitzaiola, Zitzaiokien
 35. Liluratu nau ..

31 IZAN - Potentiel présent

Ni izan naiteke	= je peux être
Hi - " - haiteke	= tu peux être
Zu - " - zaitezke	= vous pouvez être
Hura - " - daiteke	= il peut être
Gue - " - gaitezke	= nous pouvons être
Zuek - " - zaitezkete	= vous pouvez être
Hek - " - daitezke	= ils peuvent être

32 - EDUKI - Indicatif imparfait

Hura = le, la.

Nik naukan	= je le tenais
Hik naukan	= tu le tenais
Zuk zinaukan	= vous le teniez
Harek zaukan	= il le tenait
Guk zinaukan	= nous le tenions
Zuek zinaukaten	= vous le teniez
Heiek zaukaten	= ils le tenaient

33 - UKAN - Conj. à dble complément

Indicatif Imparfait Hiri = à lui - O.S. C.I.P.

Nik nion	= je le lui avais
Zuk zinion	= vous le lui aviez
Harek zion	= il le lui avait
Guk zinion	= nous le lui avions
Zuek zinioten	= vous le lui aviez
Heiek zioten	= ils le lui avaient